



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 denboraldia

30. ZIRKULARRA

EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Emakumezkoen Euskal Ligara igotzeko laugarren postua osatzeko, Batzar Nagusian erabakitako lehiaketa-oinarrien arabera antolatzen da aipatutako Igoera Fasea, honako arau hauen arabera:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Emakumezkoen Ligan bigarren postuetan sailkatutako taldeak:

C.D. Altzarrate	(Alava)
Sestao River Club	(Bizkaia)
C.D. Hernani	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

(HIRU BATEAN) izeneko formularen bidez egingo da. Partidek berrogeita bost minutu (45 m) iraungo dute, ekainaren 3an jokatuko dira Hernaniko Zubipe futbol zelaian (belar artifiziala) eta honako partiden hurrenkera honekin:

Sestao River Club – C.D. Hernani	17.00etan
Perdedor 1 ^o - C.D. Altzarrate	18.00etan
Vencedor 1 ^o - C.D. Altzarrate	19.00etan



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3.- Arbitraia

Neurketak zuzentzeko izendatutako hiru arbitroak lurraldeko maila gorenekoak izango dira.

Arbitraje-ordainagiriak parte hartzen duten hiru klubuen artean ordainduko dituzte.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da Arbitroen Euskal Batzordeak gaitzen duen kontura, lehiaketa amaitu ondoren.

4.- Zigorrak

Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrek ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezten eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2023ko maiatzaren 29a



KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENeko SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaririk aurkeztu ahaliko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahaliko dira. Ordezkoak, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaririk oro ezin izango da bigarren partidako jokalaririk zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balazko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- Elkarren artean jolastutako partiden emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatzeko aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-